

IRAKASKUNTZA-GIDA

2015/16

Ikastegia

160 - Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea. Arabako Atala

Zikl.

Zehaztugabea

Plana

GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa

3. maila

IRAKASGAIA

25936 - Gizarte Ikerketarako Metodologia Kualitatiboa

ECTS kredituak: 6

IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA

'Gizarte Ikerketarako Metodologia Kualitatiboa' 3. mailan kokatuta dagoen derrigorrezko ikasgai bat da. Gizarte Langintzaren Oinarriak, Metodologia, Teoria eta Teknikak izeneko A Moduluaren ikasgaietako bat da. Modulu bereko beste ikasgai batzuk dira Gizarte Langintzaren Oinarriak eta Metodologia, Gizarte eta Komunikazio Trebetasunak, Gizarte Langintzan Esku-hartzeko Teknikak, Banakako-familiako Gizarte Langintza, Talde Gizarte Langintza, Komunitate Gizarte Langintza, Gizarte Proiektuen Diseinua eta Ebaluazioa, eta Ikerketarako Metodologia Kuantitatiboa.

Ikerketarako Metodologia Kuantitatiboa ikasgaiak eta Gradu Bukaerako Lanak harreman estua daukate ikasgai honekin, eta guztien artean osatzen dute Gizarte Langintza Graduan gizarte ikerketaren inguruko ibilbidea, eta bere baitan ikasleari ikerkuntzaren arlorako trebakuntza eskaintzen zaio.

Gizarte ikerketak egiteko jarrai daitekeen metodologietako bat da orientazio kualitatiboa duena, eta bere oinarrietan eta bitartekoetan janztea da ikasgai honen helburua. Asmo horrekin azaldu eta aztertzen dira ikerketa kualitatiboaren adibide direnak. Eta ikerketa kualitatiborako hainbat teknikekin (sakoneko elkarrizketa, eztabaida taldeak, etc) praktikak ere egiten dira.

GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

Ikasgaiaren gaitasun zehatzak dira:

- G1: Ikerketa metodoen zutabe diren oinarri kontzeptualak ezagutzea (GO3)
- G2: Edozein fenomeno sozialen azterlana egiteko jarraitu beharreko prozedura eta teknika ezberdinak ezagutzea. (GO3)
- G3: Errealitate sozialen ikerketarako teknika ezberdinak nola erabiltzen diren jakitea (GO3)
- G4: Baliatutako teknikekin bildutako informazio esanguratsua bereizteko, aztertze eta interpretatzeko jarraitu beharreko prozedurak ezagutzea (GO3 eta 9)

Labur esanda, ikasgai honen bitartez lortu nahi diren emaitzak dira:

- Gizarte ikerketarako metodologia kualitatiboaren berezkotasunak ezagutzea,
- Baliatu genitzakeen tekniken ezaugarriak argitzea, eta kasuan kasuko ikerketa helburuentzako teknika egokienak bereizten jakitea.
- Bildutako informazioaren analisisia egin eta egoki txosteneratzen jakitea.

Irakasgaiak zeharka lantzen ditu genero ikuspegia, giza ikusbide ikuspegia, gizarte eta ingurugiro sostengarritasuna eta parte-hartzea, gizarte proiektuen formulazioaren berezko edukiak diren heinean.

IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK

- IE1: Metodologia kualitatiboaren eta beste metodologia batzuen arteko aldeak eta antzak ezagutzen ditu.
- IE2: Teknika kualitatibo eta partehartzaileen berezko ezaugarriak eta potentzialitateak ezagutzen ditu.
- IE3: Metodologia kualitatiboarekin bat datozen ikerketa helburuak eta aztergaiak formulatzen daki.
- IE4: Egoki aplikatzen dakizki informazioa biltzeko eta informazioaren analisirako teknikak.
- IE5: Egoki eratzen eta idazten ditu ikerketa jardueren txostenak.

EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

- 1.gaia: Gizarte Zientzietako ikerketaren oinarri kontzeptualak eta errealitatera hurbiltzeko bideak. Ikerketa-ekintza.
2. gaia: Ikerketa kuantitatiboaren eta kualitatiboaren “dilema”. Ikerketarako zenbait teknika nagusi.
3. gaia: Dokumentazio teknikak.
4. gaia:Narrazio teknikak: elkarrizketa pertsonalak, talde elkarrizketak eta eztabaida taldeak.
5. gaia:Behaketa teknikak: motak eta prozedura.

6. gaia: Interpretazio teknikak, eduki analisia eta emaitzen txostenak.
7. gaia: Ikerketa ekintza partehartzailea: teknika partehartzaileak gizarte ikerketan.

METODOLOGIA

Gelan ikasgaiaren gaiei buruzko azalpenak irakasleak emateaz gain (saio teorikoetan zein praktikoetan), taldeka ere landuko dira kuestio teoriko zein praktikoak. Jorratu beharreko gaitasunak jorratze aldera, jarduera formatibo ezberdinak egingo dira gelako saioetan eta beraietatik kanpo. Horien adibide dira ondorengoak: informazio bilaketa eta sistematizazioa, simulazio ariketak eta ikerketarako tekniken aplikazio praktikoa.

Azalpen teorikoen eta gelakideen arteko bateratze saioez gain, jarduera praktikoak eta aplikazio ariketak egingo dira, banaka nahiz taldean. Hauekin batera, ikasleak jorraketa autonomia eginaz joango da lan ezberdinen inguruan.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	45				15				
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	67,5				22,5				

Legenda: M: Magistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

EBALUAZIO-SISTEMAK

- Ebaluazio mistoaren sistema
- Azken ebaluazioaren sistema

KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Garatu beharreko proba idatzia % 60
- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 40

OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

EBALUAZIO SISTEMA MISTOAN:

- Beharrezkoa da eskolorduetara bertaratzea.
- Froga idatzia egin ahal izateko beste lanak entregatua egon beharko dute.
- Azterketaz gain, lan guztiak aprobatzea beharrezkoa da ikasgaia gainditzeko.

Ondorengoak dira egin beharreko lanak:

- Ikerketarako tekniken diseinu eta aplikazioarekin elkarlotutako AZTERLANAK: %40.
- AZTERKETA: %60

Egela jarriko dira beharrezko materialak, testu osagarriak eta egitekoei buruzko argibideak. Indarrean dagoen ikasturtean emandako azalpenak eta materialak dira aztergai izango direnak azterketan.

Ohiko deialdian gainditu ezean, ez ohiko deialdirako gordeko dira gaindituta dauden lanen (edo azterketaren) notak, baina ez hurrengo ikasturtean.

Azterketa prestatzeko Egela jarritako dokumentuak landu beharko dira. Egindako lan ezberdinetan jorratutakoak ere izan daitezke azterketako galdera.

Ebaluaziorako azken frogak (azterketa) ebaluazio guztiaren %60 balio duenez, ebaluatzeko DEIALDIARI UKO EGITEKO nahikoa da azken froga egitera ez aurkeztearekin.

BUKAERAKO EBALUAZIOA:

Ikasleak, justifikatutako arrazoiengatik (Kudeaketaren Araudia, 43. c artikuluan jasoak) ezingo balu ebaluazio jarraian aritu, azken ebaluazioa izan ahal luke. Kasu honetan, gaitasunak landu ahal izateko, azterlan teoriko-praktiko bat eta azterketa egin behar du ikasleak.

- AZTERLANAK: %40
- AZTERKETA: %60

Biak gainditu beharko dira ikasgaia gainditzeko. Eta ohiko deialdian gainditu ezean, ez ohiko deialdirako gordeko dira gaindituta dauden lanen (edo azterketaren) notak, baina ez hurrengo ikasturtean.

→ Indarrean dagoen ikasturtean emandako azalpenak eta materialak dira aztergai izango direnak azterketan.

Edozein ebaluazio bide jarraituta ere, lanak kalifikatzerakoan baloratuko dena da:

- Txostenaren itxurari dagozkion baldintzak betetzea.
- Garatzea eskatutako atal guztiak garatzea, nahikoa eduki eta elkarloturarekin.
- Azalpenen eta iruzkinen aberastasun eta sakontasun maila
- Idazkuntzaren zuzentasuna, erregistro egokitasuna eta koherentzia.
- Txosten akademikoen idazkuntza baldintzak betetzea, nagusiki informazioaren iturrien aipamenari dagokionean.

EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Ebaluazio baldintzak eta irizpideak ohiko deialdiaren berak dira.

Ebaluaziorako azken frogak (azterketa) ebaluazio guztiaren %60 balio duenez, ebaluatzeko DEIALDIARI UKO EGITEKO nahikoa da azken froga egitera ez aurkeztearekin.

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

→ Egelan jarritako materialak landu beharrekoak dira.

→ Garrantzitsua da oso ikasgai honek Egela plataforman duen gunea sarri errebisatzea, bertan jarriko baitira beharrezko materialak, testu osagarriak eta argibideak. Horrez gain, garrantzitsua da ere Egela errebisatzea programazioan edo ebaluazioan gertatu daitezkeen aldaketen berri izateko, Egelan argitaratuen arabera egingo delako ebaluazioa.

Irakasleak bertan jartzen dituen oharrak eta abisuak ikasleak jaso ditzan, ikaslearen ardura da EHUko HELBIDE ELEKTRONIKOA aktibatuta izatea, edo beste e-helbide batera bideratua.

→ Lan idatzi guztiei idazkuntza zuzenaren irizpideak betetzea eskatuko zaie. Oro har esanda, arloko hizkera erabiltzea eta ideiak antolatuta eta era ulergarri eta argian idatziak egotea; hori guztia gramatika eta ortografia arauak beteaz. Baldintza horiek betetzen ez dituzten lanak atzera botako dira eta EZ AURKEZTUA bezala kalifikatuko dira.

E-posta bidezko ikasleen mezuak tutoretzarako ordu tartetan erantzuten saiatuko da irakaslea.

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

- Balluerka, N. eta Gorostidi, A. (2007): Ikerketa metodoak eta diseinuak psikologian. Erein. Donostia.
- Bergua, José Ángel (2011): Estilos de investigación social: técnicas, epistemología, algo de anarquía y alguna pizca de sociología. Zaragoza. Prensas Universitarias de Zaragoza.
- Colás, Pilar eta Buendía, Leonor (1995): Hezkuntzaren ikerkuntza. Bilbao. EHU/UPVko Argitalpen Zerbitzua.
- Corbetta, Piergiorgio. (2007): Metodología y técnicas de investigación social. Madrid. McGraw-Hill.
- De Gialdino Vasilachis, Irene. (coord.) (2006): Estrategias de investigación cualitativa. Barcelona. Gedisa.
- Del Val, Consuelo (2005): Prácticas para la comprensión de la realidad social. Madrid. UNED.
- Espadas, M^a Angeles. (1997): "La investigación en la formación del Trabajador social: perspectivas metodológicas"; Revista Servicios Sociales y Política Social.
- Gibbs, G. (2012): El análisis de datos cualitativos en investigación cualitativa. Edic. Morata. Madril.
- Iñiguez, Lupiciano. (ed.) (2003): Análisis del discurso. Manual para las ciencias sociales. Barcelona. UOC.
- Mesonero de Miguel, M.(2005). Ikerketa-proiektuak lantzeko teknikak. Donostia. UEU.
- Ragin, C. (2007); La construcción de la investigación social. Introducción a los métodos y su diversidad. Caps.1, 2 y 3. Bogotá. Siglo del Hombre Editores/ Universidad de Los Andes/ Sage Publications.
- Rubio, M^a J.osé y Varas, Jesús. (1997): El análisis de la realidad en la intervención social. Métodos y técnicas de investigación. Madrid. CCS.
- Ruiz Olabuenaga, José Ignacio (2012) (5. edizioa): Metodología de la investigación cualitativa. Bilbao. Universidad de Deusto.
- Sanmartin, R. (2003): Observar, escuchar, comparar, escribir. La práctica de la investigación cualitativa. Barcelona. Ariel.
- Vallejos, Antonio et al. (2007): Métodos y técnicas de investigación social. Madrid. Ramón Areces

Gehiago sakontzeko bibliografia

- Alonso, L.E. (1995). Sujeto y discurso: el lugar de la entrevista abierta en las prácticas de la sociología cualitativa. En J.M. Delgado y J. Gutiérrez (Coords.), Métodos y Técnicas cualitativas de investigación en Ciencias Sociales (225-240). Madrid: Síntesis.

- Callejo, J. (2001). El grupo de discusión: introducción a una práctica de investigación. Barcelona: Ariel.
- Colás, P. (1992). El análisis de datos en la metodología cualitativa. Revista de Ciencia de la educación, 152, pp. 521-539.
- Gil Flores, J. y Perera Rodríguez, V (2001). Análisis informatizado de datos cualitativos. Sevilla: Kronos
- Hammersley, M. y Atkinson, P. (1994). Etnografía. Métodos de investigación. Barcelona: Paidós.
- Lorenzo, A., Martínez Piñeiro, A.B. y Martínez Piñeiro, E. (2004). Fuentes de información en investigación socioeducativa. 10, n. 2. Revista ELección de Investigación y EValuación Educativa, v. http://www.uv.es/RELIEVE/v10n2/RELIEVEv10n2_6.htm
- Marinas, J.M. y Santamarina, C. (Eds.) (1993). La historia oral: métodos y experiencias. Madrid: Debate
- Martín Criado, E. (1997). El grupo de discusión como situación social. Revista Española de Investigaciones Sociológicas, 79, pp. 81-112.
- Pujadas, J.J. (1992). El método biográfico: el uso de las historias de vida en ciencias sociales. Madrid: CIS.
- Sarabia, B. (1985). Historias de vida. Revista Española de Investigaciones Sociológicas, 29, pp. 165-186.
- Stake, R. E. (2007): Investigación con estudio de casos. Madrid: Morata.
- Valles, M.S. (2002). Entrevistas cualitativas. Madrid: CIS.

Aldizkariak

Reis: Revista española de investigaciones sociológicas

Portularia: Revista de Trabajo Social

Revista Latinoamericana de Ciencias Sociales, Niñez y Juventud.

Interneteko helbide interesgarriak

<http://la-investigacion-cualitativa.blogspot.com.es/>

OHARRAK